

BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

1610

EBAZPENA, 2022ko martxoaren 11koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez ekintza humanitarioko proiektuetarako laguntzak emateko 2022ko deialdia egiten baita.

Ekainaren 18ko 90/2019 Dekretuan, ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak arautzen dira (2019ko ekainaren 26ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 120. zenbakia).

Dekretu horren 7. artikuluan xedatutakoarekin bat, ekintza humanitarioko proiektuetarako laguntzak emateko 2022ko deialdia egin behar da. Deialdi hau Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2022rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan dago.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektoreak, 2022ko urtarrilaren 25ean egindako bileran, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortzen duen ekainaren 9ko 5/2008 Legearen 10. artikulua ematen dizkion ahalmenekin bat etorritik, erabaki du eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariari proposatu dio deialdi-ebazpen hau onartzea, bai eta hura emateko oinarritzko irizpideak ere.

Hori dela-eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da ekainaren 18ko 90/2019 Dekretuan (2019ko ekainaren 26ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 120. zenbakia.) araututako laguntzen 2022ko deialdia egitea. Dekretu horren bidez, ekintza humanitarioko proiektuetarako laguntzak arautzen dira, gatazka-testuinguruetan eta beste indarkeria-egoera batzuetan krisi humanitarioak jasaten dituzten biztanleentzat, eremu humanitarioan erabiltzen diren nazioarteko estandarren bitartez identifikatuta.

2. artikulua.– Diru-zuzkidura.

1.– Ekintza humanitarioko proiektuetarako diru-zuzkidura 4.000.000 eurokoa da –ondoaz ondoko lehia-prozeduraren bidez emanak–.

2.– Esku-hartze bakoitzeko, gehienez ere, 200.000 euroko dirulaguntza esleiri daiteke.

3.– Afrikan egitekoak diren ekintza humanitarioko proiektuen ekimenei emango zaie lehentasuna. Helburu horrekin, gutxienez 1.600.000 euro gordeko dira Afrikan egitekoak diren proiektuak finantzatzeko –baldin eta laguntzak arautzen dituen araudiak exijitutako betekizunak betetzen badituzte–.

4.– Ondoaz ondoko lehia-prozeduraren bidez ekintza humanitarioko proiektuetara zuzendutako funtsak agortuz gero, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren bitartez jakinaraziko da, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren ebazpen bat argitaratuta.

3. artikulua.– Eskabideak aurkezteko eta formalizatzeko epea.

1.– 2022ko aurrekontu-ekitaldi osoan aurkeztu ahal izango dira ekintza humanitarioko proiektuetarako laguntza-eskabideak, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, dirulaguntza-modalitate horretan esleitutako

diru-zuzkidura agortzen bada, eskabideak aurkezteko epea amaitu egingo da, EHAAn horren berri ematen den egunean.

2.– Erakunde bakoitzari, banaka edo taldeka, gehienez 2 eskabide eman ahal izango zaizkio.

3.– Agindu honen ondoriozko eskabideak, errekerimenduak, jakinarazpenak eta gainerako kudeaketak bitarteko elektronikoz bakarrik egingo dira.

4.– Eskaera-orria eskuratzeko eta betetzeko, www.euskadi.eus egoitza elektronikora jo beharko da; laguntzak eta dirulaguntzak atalera, zehazki.

5.– Egoitza elektronikoko horretan egongo dira eskuragai elektronikoki nola izapidetu behar den argitzeko zehaztapenak, bai eta eskaera-orria ere. Laguntzari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, www.euskadi.eus webgunean eskuratu ahal izango da, laguntzen eta dirulaguntzen atalean.

6.– Entitate interesduna espedientean sartzeko, dokumentazioa aurkezteko eta zuzenketak, jakinarazpenak eta prozedura honekin lotutako gainerako izapidetako egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» aplikazioa baliatu behar da (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta/web01-sede/eu/>).

7.– Eskabidearekin batera, erakunde eskatzailea ordezkatzeko legezko gaitasuna duen pertsonaren edo erakundearen sinadura elektronikoa aitortuaz gain, harekin batera aurkeztu beharreko agiri guztiak eta Administrazioak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera eska ditzakeenak ere aurkeztu beharko dira.

8.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, interesdunak baimena eman ondoren, legezko ordezkariaren akreditazioa ofizios begiratu, ziurtatu edo egiaztatuko du administrazio eskudunean. Hala ere, ordezkari bati eman ahal izango zaio, haren izenean elektronikoki jardun dezan ebazpen honi dagozkion jarduketak guztietan, eta, horretarako, aukera hauetako bat erabiliko da:

– Ahalordeen Erregistro Elektronikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa kokatua (<https://www.euskadi.eus/ordezkariak/>), edo

– «Borondatezko legezko ordezkariaren egilestea inprimaki normalizatua» (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkariaren-egilestea-inprimaki-normalizatua/>), behar bezala formalizatua, eskabidearekin batera aurkeztu beharko da. Pertsona juridikoek ordezkariaren ahalordearen kopia, edo ahalorde-emailea erakunde ordezkariaren emailearen legezko ordezkari gisa legitimatzen duen legezko zeinahi dokumentu erantsi beharko dute, edo

– Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Lankidetzako Eragileen Erregistroa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa kokatua (https://www.euskadi.eus/erregistroa/reg_ag_coop/web01-tramite/eu/).

Ordezkariaren egoitza elektronikoko horretan onartutako bitarteko bat izan beharko du elektronikoki identifikatzeko.

Helbide honetan eskuratu daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>.

9.– Laguntza jasotzeko eskabidea nahi den hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango da, eskatutako dokumentazioarekin batera.

10.– Eskaerak aurkezteak esan nahi du deialdi honen oinarriek zehazten dituzten baldintzak berariaz eta formalki onartzen direla.

4. artikulua.– Eskabidearen edukia eta aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Eredua normalizatuan dagoen eskaera-orria (I. eranskinari jarraituz) osorik bete behar da, telematikoki. Eskaera-orri horretan entitate eskatzailearen datu orokorrak, aurrekontua eta proposatutako proiektua bilduko dira, bai eta bertan azaltzen den informazioaren egiazkotasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpena ere (II. eranskinean zehazten da).

2.– Eskabidearekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

a) Ekintza humanitarioaren esparruan gutxienez bi urte jarraiko esperientzia izatearen egiaztagiria, baldin eta entitatearen estatutuetan ez bada berariaz adierazten ekintza humanitarioko proiektuak egitea dela bere helburuetako bat. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, interesdunak baimena eman ondoren, egiaztagiria ofizioz begiratu, ziurtatu edo egiaztatuko du administrazio eskudunean.

Hala ere, estatutuetan helburu hori jasota ez badago, gutxienez bi urte jarraiko esperientzia egiaztatzeko honako dokumentu hauetako bat aurkeztu beharko da: administrazio publikoek emandako ziurtagiriak edo ebazpenak, edo interesduna ez den beste entitate pribatu batzuek emandako ziurtagiriak (auditoretzak barne), edo administrazio publikoek diruz lagundutako proiektuak jasotzen dituzten aldizkari ofizialetako argitalpenak, edo organo eskudunek egiaztatutako memoriak edo urteko kontuak –horietan esperientzia jarraitu hori espresuki adierazita egon behar du–.

b) Esku-hartzean parte hartzen duten tokiko bazkideen eraketa-eskritura edo estatutuak eta erregistro-ziurtagiria, eskaera aurkeztu baino gutxienez urtebete lehenagokoa.

Tokiko bazkidearen izaera juridikoaren ondorioz ezintasun juridiko bat edo ezintasun politiko bat badago herrialdeko egoeren ziozkoa dena, erregistroan inskribatuta egoteko baldintza egiaztatu beharrean, tokiko bazkidearen nortasun juridikoa, esperientzia eta jarduera egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

c) Ez da beharrezkoa izango entitate eskatzaileak inskripzioa Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Lankidetzako Eragileen Erregistroan aurkeztea, baldin eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari baimena ematen badio eskumena duen administrazioan ofizioz begiratu, ziurtatu edo egiaztatzeko.

3.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak automatikoki egiaztatuko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituen, datu-bitartekaritzarako plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuei kontsulta eginez.

Hala ere, pertsona edo entitate eskatzaileak espresuki egin diezaioke uko egiaztatze horri, eta, hala eginez gero, dagozkion egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu.

4.– Ekintza humanitarioko proiektuak baloratzeko, entitate eskatzaileak honako dokumentazio hau aurkeztu ahal izango du:

a) Proposamen teknikoa, III. eranskin gisa argitaratutako eredu normalizatuaren arabera.

b) Dirulaguntzaren aurrekontu banakatua, IV. eranskin gisa argitaratutako eredu normalizatuaren arabera egina eta V. eranskin gisa argitaratutako jarraibideetan aurreikusitakoaren arabera beteta.

c) Esku-hartzearen bideragarritasuna baloratzeko: aurreikusitako obra edo azpiegituren karpeta teknikoak, planoak, administrazio-lizentziak eta prestakuntza-planak, edukiak eta metodologiak barne.

d) Entitate eskatzaile(ar)en Plan Estrategikoa eta ekintza humanitarioko Plan Estrategikoa.

e) Entitate eskatzaile(ar)en berdintasun-plana.

f) Tokiko bazkide(ar)en Plan Estrategikoa eta ekintza humanitarioko Plan Estrategikoa.

g) Tokiko bazkide(ar)en genero-politika.

5.– Artikulu honetako 2.b), 3.d), e), f) eta g) apartatuetan aipatzen den dokumentazioa Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren esku badago, Agentziak dokumentazio hori eskuratu eta ofizioz kontsultatu ahal izango du, baldin eta entitate interesdunak eskabidean adierazten badu zer espediente-zenbakitan dagoen.

5. artikulua.– Hautaketa Batzordea.

1.– Aurreko artikuluan aipatutako Hautaketa Batzordea honako pertsona hauek osatuko dute:

– Lehendakaria: Alazne Camiña Izkara andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Koordinazio Teknikoko arduraduna.

– Batzordekidea: Ana Rojo González andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Aholkularitza Juridikoko arduraduna.

– Batzordekidea eta idazkaria: M.^a Pilar Diez Arregui andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Lankidetzako teknikaria.

2.– Hautaketa Batzordean hutsuneren bat badago edo titularren bat absente badago, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat badago, honako hauek ordezkatu ahal izango dituzte:

– Lehendakaria: Noemí de la Fuente Pereda andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Estrategikoko arduraduna.

– Batzordekidea: M.^a Cristina Rico Fernández andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako aholkulari juridikoa.

– Batzordekidea eta idazkaria: Alicia Aleman Arrastio andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Lankidetzako teknikaria.

3.– Hautaketa Batzordeak, behar izanez gero, teknikari espezialisten laguntza izan dezake. Teknikari horiek batzordean hitz egiteko eskubidea izango dute, baina botoa emateko eskubiderik ez.

6. artikulua.– Balorazio-irizpideak:

Ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak arautzen dituen ekainaren 18ko 90/2019 Dekretuaren 15. artikuluan aurreikusitako balorazio-irizpideak ebazpen honen VI. eranskineko esku-hartzeen ikuspegi arabera ezarriko dira.

7. artikulua.– Ebazpena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 51.9 artikuluekin bat, eskabidea

2022ko apirilaren 11, astelehena

aurkeztu zenetik 6 hilabeteko epea igaro ondoren, berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada, eskabidea ezetsizat joko da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Garapenerako lankidetzaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen uztailaren 23ko 390/2013 Dekretuak aldatzen duen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuaren 23.4 artikulua dioenez, entitate eskatzaile bakoitzak gehienez eskura dezakeen dirulaguntzaren guztizko zenbatekoa zehaztuko da dagokion ekitaldian onartzen den lehenengo laguntza-deialdian.

Hori kontuan izanik, 2022ko aurrekontu-ekitaldian ematen diren dirulaguntza guztien % 7koa izango da entitate eskatzaile bakoitzak gehienez eskura dezakeen dirulaguntzaren guztizko zenbatekoa. Hau da, 2.989.000 euro, garapenerako lankidetzaren kargura urtean onartzen diren laguntzen edozein deialditan; dirulaguntza horiek geroago ordaindu litezke, aurreragoko ekitaldietan.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Garapenerako lankidetzaren kargurako ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak arautzen dituen ekainaren 18ko 90/2019 Dekretuan ezarritakoaz gain, ebazpen honek hizpide dituen dirulaguntzek honako hauek xedatutakoa dute oinarri: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea; Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren testuaren VI. titulua eta VII. tituluko III. kapitulua; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean jasotako oinarrizko araudia; eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 11.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

2022ko apirilaren 11, astelehena

I. ERANSKINA
ESKABIDEA - FINANTZAKETA IRAUNKORRA (AURRE)
(KODEA: 1002011)

I. eranskin hau deialdi-ebazpenari erantsi zaio, eskabide normalizatuaren edukiaren berri emateko soilik. Finantzaketa iraunkorreko proiektuetarako laguntza eskatu nahi duen entitateak ez du eranskin hau erantsi beharko; aitzitik, telematikoki bete beharko du, www.euskadi.eus webgunearen bidez, «Laguntzak eta dirulaguntzak» atalean, edo www.elankidetz.euskadi.eus webgunearen bidez, «Laguntzak, bekak eta saria» atalean.

Izartxoak (*) duten eremuak nahitaez bete behar dira.

<p>Hartzailea:</p> <p>Erakundea: Beste erakundeak - garapenerako lankidetzaren euskal agentzia</p> <p>Instrukzio-organoa: Garapenerako lankidetzarako Euskal Agentziako Zuzendaritza</p>

DATU PERTSONALAK

<p>Eskatzailea:</p> <p>Honela jarduten du <input type="radio"/> Espedientean interesa duen pertsona/erakunde gisa: <input type="radio"/> Honako honen ordezkari gisa:</p> <table border="1"> <thead> <tr> <th>Identifikazio-dokumentua</th> <th>Zenbakia</th> <th>Izena</th> <th>Lehenengo abizena</th> <th>Bigarren abizena</th> <th>Sexua</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td> </td> <td> </td> <td> </td> <td> </td> <td> </td> <td> </td> </tr> </tbody> </table>	Identifikazio-dokumentua	Zenbakia	Izena	Lehenengo abizena	Bigarren abizena	Sexua						
Identifikazio-dokumentua	Zenbakia	Izena	Lehenengo abizena	Bigarren abizena	Sexua							

JAKINARAZPENETARAKO DATUAK

<p>Jakinarazpenak eta komunikazioak helbide honetara bidaliko dira:</p> <p>Espedientea izapidetzen ari den bitartean, Administrazioak honi bidaliko dizkio jakinarazpenak:</p>

PROIEKTUAREN DATUAK

<p>PRE programa EH lerroa</p> <p>Entitate eskatzailearen datu fiskalak dituen lurraldea/probintzia</p> <p>Lurraldea/Probintzia * Aukera ezazu</p> <p style="text-align: center;"><input type="radio"/> Araba <input type="radio"/> Bizkaia <input type="radio"/> Gipuzkoa <input type="radio"/> Beste probintzia bat</p>

Entitate eskatzailearen/partzuergo-buruaren datuak (LEHENENGO) eta Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten partzuergo-entitateenak (GUZTIAK)

Kod. Eragileen erreg.	Izena	IFZ	Exekutatzekoa den dirulaguntzaren %-a	Erregistroa	Erregistro-data

2022ko apirilaren 11, astelehena

Erreferentziako pertsonaren datuak

Izena *

Lehenengo abizena *

Bigarren abizena

Lanpostua eta kargua

Telefonia *

Helbide elektronikoa *

Tokiko entitateen datuak (guztiak)

Kodea	Izena	Herrialdea	Probintzia	Herria	Helbidea	Telefonia	Helbide elektronikoa	Webgunearen helbidea	Exekutatzekoa den dirulaguntzaren %-a	Erregistroa	Erregistro-data	Herrialdea

Tokiko entitate(ar)en eraketa-eskriturak, estatutuak eta erregistro-ziurtagiria Lankidetzarako Garapenerako Lankidetzako Euskal Agentziari zer espedientetan eta noiz aurkeztu zenizkion adierazten baduzu, ez dituzu berriz erantsi behar.

Espedientearen zk.:

Noiz aurkeztu ziren:

Esku-hartzea

Izenburua *

Laburpena (4-8 lerro) *

Exekutatze-herrialdea *

Krisiaren jatorrizko herrialdea *

CRS. Adierazi itzazu ekimenari dagokion CRS nagusiaren 5 zenbakiak (kode horiek www.euskadi.eus webgunean argitaratuta daude, «Laguntzak eta dirulaguntzak» atalean, bai eta www.elankidetz.euskadi.eus webgunean ere, «Laguntzak, beka eta saria» atalean) *

GJH. Adieraz ezazu zer GJH nagusitan laguntzen duen ekimenak * Aukera ezazu

- 1. GJHa. Pobrezia desagertzea.
- 2. GJHa. Goserik eza.
- 3. GJHa. Osasuna eta ongizatea.
- 4. GJHa. Kalitatezko hezkuntza.
- 5. GJHa. Genero-berdintasuna.
- 6. GJHa. Ur garbia eta saneamendua.
- 7. GJHa. Energia eskuragarria eta ez-kutsagarria.
- 8. GJHa. Lan duina eta hazkunde ekonomikoa.
- 9. GJHa. Industria, berrikuntza eta azpiegitura.
- 10. GJHa. Desberdintasunak murriztea.
- 11. GJHa. Hiri eta komunikazio jasagarriak.
- 12. GJHa. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak.
- 13. GJHa. Klimaren aldeko ekintza.
- 14. GJHa. Itsaspeko bizitza.
- 15. GJHa. Lehorreko ekosistemetako bizitza.
- 16. GJHa. Bakea, justizia eta instituzio sendoak.
- 17. GJHa. Helburuak lortzeko aliantzak.

2022ko apirilaren 11, astelehena

GJH jomuga. Adierazi ezazu ekimenak zer GJHtan egiten duen ekarpen nagusia (kode horiek www.euskadi.eus webgunean argitaratuta daude, «Laguntzak eta dirulaguntzak» atalean, bai eta www.elankidetza.euskadi.eus webgunean ere, «Laguntzak, bekak eta saria» atalean) *

Proiektuaren iraupena

Noiz hasia aurreikusten den *

Gauzatze-epe osoa, hilabetetan *

Xede-biztanleak/karakterizazioa

1.- Ekimeneko ekintzetan zuzenean parte hartzen duten xede-biztanleak

Gauzatze-herrialde(eta)ko xede-biztanleak

Emakumeak: *

Gizonak: *

Ez-bitarrak: *

Guztira: *

Euskadiko xede-biztanleak

Emakumeak: *

Gizonak: *

Ez-bitarrak: *

Guztira: *

Beste lurralde batzuetako xede-biztanleak

Zehaztu zein/zeintzuk: 1. L

2. L

3. L

Emakumeak: *

Gizonak: *

Ez-bitarrak: *

Guztira: *

Ekimeneko ekintzetan zuzenean parte hartzen duten xede-biztanleak, guztira

Emakumeak: *

Gizonak: *

Ez-bitarrak: *

Guztira: *

2.- Xede-biztanleen karakterizazioa, zein diren gehiengoa, honako irizpide hauen arabera:

Xede-biztanleen sexua * Aukera ezazu

- Emakumeak Gizonak Ez-bitarrak Guztiak

Xede-biztanleen adina * Aukera ezazu

- Haurrak Gazteak Helduak Adinekoak Guztiak

Xede-biztanle motak * Aukera ezazu

- Errefuxiatuak edo barne-lekualdatuak.
 Bertako herritarrak.
 Estaturik gabeko herriak.
 Gizarte- edo etnia-talde baztertuak.
 Gaixoak.
 Guztiak

Krisi mota * Aukera ezazu

- Gatazka armatua EBko gatazka ahaztu bat Beste indarkeria-egoera batzuk

Testuingurua * Aukera ezazu

Zehaztu:

- Hiria Landa-eremua Kanpalekuak Beste

2022ko apirilaren 11, astelehena

Finantzaketa

Kostu osoa (eurotan) *

Eskatutako dirulaguntza (eurotan) *

Tokiko dirua euro bihurtzeko erabilitako truke-tasa (TT). Ikus itzazu deialdi-ebazpenarekin batera argitaratutako jarraibideak

Bitarteko dibisa (TT) *

Bitarteko dibisa (dirua) *

1. tokiko dibisa (TT) 1. tokiko dibisa (dirua)

2. tokiko dibisa (TT) 2. tokiko dibisa (dirua)

TTa lortzeko iturria (EBZ/Oanda) *

Truke-tasaren data *

Aurrekontu-koadroa (partidak/Garapenerako Lankidetzako Euskal Agentziari eskatutako zenbatekoa, eurotan / dirulaguntza osoaren gaineko %-a). Zenbakizko eremuetarako formatu baliogarria honako hau da: #.###,##, hau da, milakoak adierazteko puntua erabili behar da eta dezimalak adierazteko koma.

A. Kostu zuzenak

A.I.- Identifikazio-gastuak *

kopuru osoaren gaineko %-

a *

A.II.- Ondasunak eta zerbitzuak hornitzeko gastuak, erkidegoak eta pertsonak babesteko*

kopuru osoaren gaineko

%a *

A.III.- Erakunde humanitarioak indartzeko gastuak *

kopuru osoaren gaineko %-

a

A.IV.- Lekukotza, salaketa eta eraginen gastuak*

kopuru osoaren gaineko %-

a *

A.V.- Langile-gastuak *

kopuru osoaren gaineko %-

a *

A.VI.- Funtzionamendu-gastuak *

kopuru osoaren

gaineko %-a *

A.VII.- Ebaluazio- eta auditoria-gastuak *

kopuru

osoaren gaineko %-a *

Kostu zuzenak, guztira

B. Zeharkako kostuak

Entitate eskatzailearen administrazio-gastuak*

kopuru osoaren gaineko

%a *

Zeharkako kostuak, guztira

Guztira

Guztira

DATU OSAGARRIAK**Entitate eskatzailearen/partzuergo-buruaren bestelako datuak**

Bazkide kopurua:	Emakumeak *	Gizonak *	Ez-bitarrak *
Boluntario kopurua:	Emakumeak *	Gizonak *	Ez-bitarrak *
EAEEn kontratatutako pertsonen kopurua:	Emakumeak *	Gizonak *	Ez-bitarrak *
Xede-lurraldean kontratatutako pertsonen kopurua:	Emakumeak *	Gizonak *	Ez-bitarrak *

Entitate eskatzailea/partzuergo-burua honako honi atxikita dago (adieraz ezazu jokabide-kode bat duen eta bere Jarraipen Batzordeak zehatu ez duen garapenerako lankidetzako eta/edo ekintza humanitarioko erakunde koordinatzaile edo sarearen izen osoa):

Entitate eskatzailea/partzuergo-burua honako honi atxikita dago (adieraz ezazu Nazioarteko Ekintza Humanitarioko Etikarekin lotutako jokabide-kodearen izen osoa):

Honako dokumentazio hau aurkez dezakezu balorazioa egiteko:

Entitate eskatzaileak/partzuergo-buruak Plan Estrategiko bat du: Bai Ez

Aurreko erantzuna «bai» izan bada, plana Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari zein espedientetan eta noiz aurkeztu zenion adierazten baduzu, ez duzu berriz erantsi beharko. Adieraz ezazu Planaren indarraldia ere: *

Espedientearen zk.: Noiz aurkeztu zen:

Entitate eskatzaileak/partzuergo-buruak Ekintza Humanitarioko Plan Estrategiko bat du: Bai Ez

Aurreko erantzuna «bai» izan bada, plana Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari zein espedientetan eta noiz aurkeztu zenion adierazten baduzu, ez duzu berriz erantsi beharko. Adieraz ezazu Planaren indarraldia ere: *

Espedientearen zk.: Noiz aurkeztu zen:

Entitate eskatzaileak/partzuergo-buruak Genero-berdintasunaren aldeko Plan bat du: Bai Ez

Aurreko erantzuna «bai» izan bada, plana Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari zein espedientetan eta noiz aurkeztu zenion adierazten baduzu, ez duzu berriz erantsi beharko. Adieraz ezazu Planaren indarraldia ere: *

Espedientearen zk.: Noiz aurkeztu zen:

Partzuergo bateko kidea den entitate eskatzailearen bestelako datuak

Entitate eskatzailea partzuergo bateko kidea bada bakarrik bete behar duzu atal hau.

Partzuergo bateko kidea den entitate eskatzailea honako honi atxikita dago (adieraz ezazu jokabide-kode bat duen eta bere Jarraipen Batzordeak zehatu ez duen garapenerako lankidetzako eta/edo ekintza humanitarioko erakunde koordinatzaile edo sarearen izen osoa):

Partzuergo bateko kidea den entitate eskatzailea honako honi atxikita dago (adieraz ezazu Nazioarteko Ekintza Humanitarioko Etikarekin lotutako jokabide-kodearen izen osoa):

Honako dokumentazio hau aurkez dezakezu balorazioa egiteko:

Partzuergo bateko kidea den entitate eskatzaileak Plan Estrategiko bat du: Bai Ez

2022ko apirilaren 11, astelehena

Aurreko erantzuna «bai» izan bada, Plana Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari zein espedientetan eta noiz aurkeztu zenion adierazten baduzu, ez duzu berriz aurkeztu beharko. Adieraz ezazu Planaren indarraldia ere: *

Espedientearen zk.: Noiz aurkeztu zen:

Partzuergo bateko kidea den entitate eskatzaileak Ekintza Humanitarioko Plan Estrategiko bat du: Bai Ez

Aurreko erantzuna «bai» izan bada, plana Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari zein espedientetan eta noiz aurkeztu zenion adierazten baduzu, ez duzu berriz erantsi beharko. Adieraz ezazu Planaren indarraldia ere: *

Espedientearen zk.: Noiz aurkeztu zen:

Partzuergo bateko kidea den entitate eskatzaileak Genero-berdintasunaren aldeko Plan bat du: Bai Ez

Aurreko erantzuna «bai» izan bada, plana Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari zein espedientetan eta noiz aurkeztu zenion adierazten baduzu, ez duzu berriz erantsi beharko. Adieraz ezazu Planaren indarraldia ere: *

Espedientearen zk.: Noiz aurkeztu zen:

Tokiko bazkide(ar)en bestelako datuak

Tokiko bazkidea/bazkideak honako honi atxikita dago/daude: Bai Ez

Aurreko erantzuna «bai» izan bada, adieraz ezazu jokabide-kode bat duen eta bere Jarraipen Batzordeak zehatu ez duen garapenerako lankidetzako eta/edo ekintza humanitarioko erakunde koordinatzaile edo sarearen izen osoa, tokiko entitate bakoitzarena: *

Tokiko bazkidea	Erakunde koordinatzailea edo sarea

Tokiko bazkidea/bazkideak honako honi atxikita dago/daude: Bai Ez

Aurreko erantzuna «bai» izan bada, adieraz ezazu Nazioarteko Ekintza Humanitarioko Etikarekin lotutako jokabide-kodearen izen osoa, tokiko entitate bakoitzarena: *

Tokiko bazkidea	Jokabide-kodea

Honako dokumentazio hau aurkez dezakezu balorazioa egiteko:

Tokiko bazkideak/bazkideek Plan Estrategiko bat du(te): Bai Ez

Aurreko erantzuna «bai» izan bada, plana Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari zein espedientetan eta noiz aurkeztu zenion adierazten baduzu, ez duzu berriz erantsi beharko.

Espedientearen zk.: Noiz aurkeztu zen:

Adieraz ezazu Planaren indarraldia ere: *

Tokiko bazkidea	Planaren indarraldiaren datak (hasiera-amaiera)

Tokiko bazkideak/bazkideek Ekintza Humanitarioko Plan Estrategiko bat du(te): Bai Ez

2022ko apirilaren 11, astelehena

Aurreko erantzuna «bai» izan bada, plana Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari zein espedientetan eta noiz aurkeztu zenion adierazten baduzu, ez duzu berriz erantsi beharko.

Espedientearen zk.: Noiz aurkeztu zen:

Adieraz ezazu Planaren indarraldia ere: *

Tokiko bazkidea	Planaren indarraldiaren datak (hasiera-amaiera)

Tokiko bazkideak/bazkideek Genero-berdintasunaren aldeko Plan bat du(te): Bai Ez

Aurreko erantzuna «bai» izan bada, plana Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari zein espedientetan eta noiz aurkeztu zenion adierazten baduzu, ez duzu berriz erantsi beharko.

Espedientearen zk.: Noiz aurkeztu zen:

Adieraz ezazu Planaren indarraldia ere: *

Tokiko bazkidea	Planaren indarraldiaren datak (hasiera-amaiera)

Esku-hartzeari buruzko bestelako datuak

Ordainagiriak erabiltzea, faktura bidez justifikatzerik ez badago: Bai Ez

Ordainagiriak (izenpea/zenbatekoa, eurotan/dirulaguntzaren kopuru osoaren gaineko %-a)

Elikadura	kopuru osoaren gaineko %-a
Garraioa	kopuru osoaren gaineko %-a
Bestelakoak_1	kopuru osoaren gaineko %-a
Bestelakoak_2	kopuru osoaren gaineko %-a
Bestelakoak_3	kopuru osoaren gaineko %-a
Bestelakoak_4	kopuru osoaren gaineko %-a

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

Entitate eskatzaileak/partzuergo-buruak adierazten du dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituela eta hori frogatzeko dokumentazioa duela; dokumentazio hori Administrazioaren eskura jarriko duela, eskatzen zaionean; eskubidea aitortzen zaion bitartean baldintza horiek betetzeko konpromisoa hartzen duela; funtsezko zehaztasunik ezak, faltsukeriak edo ez-egiteak erantzukizun penalak, zibilak

2022ko apirilaren 11, astelehena

edo administratiboak izan ditzakeela; eta Administrazioak egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko eskumena duela.

Entitate eskatzailearen/partzuergo-buruaren erantzukizunpeko adierazpenak

1. Xede eta helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako bitartekoak eskatzea edo jasotzea, edozein administrazio zein entetatik, dela publikoa dela pribatua.

- Bai, eskatu edo jaso ditu (aurrekontuan datu horiek zehaztu egin behar dira).
- Ez ditu eskatu, ezta jaso ere.
- 2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, haren erakunde autonomoek eta bestelako entitateek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi den eta oraindik izapidetzen ari den itzultze- edo zehapen-prozedura batean sartuta dago.

Prozedura/instantzia kudeatzailea

Prozedura	Instantzia kudeatzailea

- 3. Ez dago Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan aurreikusitako inolako debeku-egoeratan.
- 4. Ez zaio ezarri laguntza eta dirulaguntza publikoak eskuratzea eragozten dion zehapenik, ez administrazio-arlokorik, ez zigor-bidekorik, eta ez du halakorik eskuratzeko legezko debekurik (ildo horretatik, kontuan izan behar dira Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean sexuaren ziozko bereizkeria zehatzeko ezarritako zigor eta debekuak).
- 5. Entitate eskatzaileak/partzuergo-buruak adierazten du tokiko bazkidea/bazkideak ez dagoela/daudela penalki edo administratiboki zehatuta sexu-bereizkeriagatik.

Dirulaguntzak emateko behin-behineko ebazpenean adjudikazioduna izanez gero, 5. apartatuan adierazitakoa dokumentuen bidez frogatu beharko du, horretarako emango den 15 egun balioduneko epean.

EGIAZTATZEA

Entitate eskatzaileak/partzuergo-buruak ez badu baimenik ematen ofiziozko egiaztapenen bat egiteko, dagoen dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Aplikatu beharreko araudiari jarraituz, Garapenerako Lankidetzako Euskal Agentziak entitate eskatzailearen/partzuergo-buruaren honako datu hauek ofizioz egiaztatuko ditu administrazio eskuduneari:

Legezko ordezkartzaren egiaztapena

- Entitate eskatzaileak/partzuergo-buruak deialdi hau kudeatzen duen erakundeari baimena ematen dio legezko ordezkartza administrazio eskuduneari begiratzeko, ziurtatzeko edo egiaztatzeko, bide telematikoen bidez, edo, kasuan-kasuan, eskura daudenen bidez.

Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Lankidetzako Eragileen Erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzea

- Entitate eskatzaileak/partzuergo-buruak deialdi hau kudeatzen duen erakundeari baimena ematen dio administrazio eskuduneari begiratu, ziurtatu edo egiaztatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Lankidetzako Eragileen Erregistroan izena emanda dagoela, bide telematikoen bidez, edo, kasuan-kasuan, eskura daudenen bidez.

2022ko apirilaren 11, astelehena

Estatutueta aipatutako helburuen artean ekintza humanitarioko proiektuak egitea jasotzen den egiaztatzea

- Entitate eskatzaileak/partzuergo-buruak deialdi hau kudeatzen duen erakundeari baimena ematen dio administrazio eskudunean begiratu, ziurtatu edo egiaztatzeko entitate eskatzailearen estatutueta – dagokion erregistroan erregistratuak– aipatutako helburuen artean ekintza humanitarioko proiektuak egitea espresuki jasotzen dela, bide telematikoen bidez, edo, kasuan-kasuan, eskura daudenen bidez. Hala ez bada, agiri bidez egiaztatu beharko da entitateak gutxienez bi urte jarraian daramatzala esparru horretan lanean; horretarako, dagokion informazioa «Entitate eskatzailearen eranskinak» atalean erantsi beharko da.

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa

Eskubidean ageri diren datu pertsonalak «Garapenerako lankidetzako laguntzak eta dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueran sartu eta tratatuko dira.

- **Arduraduna:** Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.
- **Helburua:** Garapenerako lankidetzaren arloko laguntzak, dirulaguntzak eta bekak kudeatzea.
- **Legitimazioa:**
 - Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean misio bat egiteko edo tratamenduaren arduradunari aitortzen zaizkion botere publikoak egikaritzeko.
- **Hartzaileak:**
 - Ogasun publikoa eta zerga-administrazioa.
 - Gizarte Segurantzako erakundeak.
 - Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian kooperanteen eta bekadunen izen-abizenak argitaratzea.
- **Eskubideak:** Datuak eskuratu, zuzendu eta deuseztatzeko eskubideak dituzu, bai eta informazio gehigarrian adierazten diren beste eskubide batzuk ere.
- **Informazio osagarria:** Gure webgunean kontsultatu dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta zehatza (<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/019500-cap2-eu.shtml>).

Araudia:

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES).
3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

Aurkeztu beharreko agiriak

Agiriak euskara edo gaztelania ez beste hizkuntza batean baldin badaude, horiekin batera gaztelaniarako eta/edo euskararako itzulpena aurkeztu beharko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 15. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

AGIRIAK ERANSTEA**Ofiziozko egiaztapena**

Aplikatzekoa den araudiaren arabera, prozedura hau bideratzen duen organoak **ofizioz egiaztatuko ditu**, dagokion administrazioan, honako datu hauek:

- ✓ Gizarte Segurantzaren ordainketa egunean dagoen (GSDN-Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia).
- ✓ Zerga-betebeharrak egunean dauden (EAEko foru-aldundiak edo Estatuko Zerga Agentzia).

Salbu interesdunak, arrazoiak eman, eta aurka egiten badu. **Aurka egiteko eskubidea erabiltzea.**

2022ko apirilaren 11, astelehena

Eskatutako dokumentu motak

Eskatutako dokumentuak	Ekintzak
Proposamen teknikoa	Erantsi/Bilatu/Emana
Aurrekontua	Erantsi/Bilatu/Emana
Entitate eskatzailearen eranskinak	Erantsi/Bilatu/Emana
Tokiko bazkidearen eranskinak	Erantsi/Bilatu/Emana
Bideragarritasun tekniko, material eta metodologikoari buruzko eranskinak	Erantsi/Bilatu/Emana

2022ko apirilaren 11, astelehena

II. ERANSKINA

PARTZUERGO BATEKO KIDE D(IR)EN ENTITATE ESKATZAILEAK/ESKATZAILEEK SINATUTAKO
ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA BERE DOKUMENTAZIOA OFIZIOZ EGIAZTATZEKO
BAIMENA

Proiektua gauzatu duen entitate eskatzaile partzuergokide bakoitzeko adierazpen bat sinatu beharko da. **Salbuespena:** entitate eskatzaile partzuergo-buruek ez dute dokumentu hau sinatu beharko, telematikoki beteko duten eskabide normalizatuan erantzukizunpeko adierazpenak egin eta ofizioz egiaztatze baimenak emango baitituzte.

..... jaunak/andreak, entitatearen legezko ordezkari gisa,
zeinaren NAN zenbakia den eta bere helbidea,

ADIERAZTEN DU

Partzuergo bateko kidea den entitate eskatzaileak adierazten du dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituela eta hori frogatzeko dokumentazioa duela; dokumentazio hori Administrazioaren eskura jarriko duela, eskatzen zaionean; eskubidea aitortzen zaion bitartean baldintza horiek betetzeko konpromisoa hartzen duela; funtsezko zehaztasunik ezak, faltsukeriak edo ez-egiteak erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak izan ditzakeela; eta Administrazioak egiaztatze, kontrolatzeko eta ikuskatzeko eskumena duela.

1. Xede eta helburu bererako laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako bitartekoak eskatzea edo jasotzea, edozein administrazio zein entetatik, dela publikoa dela pribatua.

	Bai, eskatu edo jaso ditu (aurrekontuan datu horiek zehaztu egin behar dira).
	Ez ditu eskatu, ezta jaso ere.

	2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasitako itzultze- edo zehapen-prozedura batean sartuta dago. Prozedura/instanzia kudeatzailea <table border="1"> <thead> <tr> <th>Prozedura</th> <th>Instanzia kudeatzailea</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td></td> <td></td> </tr> </tbody> </table>	Prozedura	Instanzia kudeatzailea		
Prozedura	Instanzia kudeatzailea				
	3. Ez dago Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 eta 13.3 artikuluetan aurreikusitako inolako debeku-egoeratan.				
	4. Ez zaio ezarri laguntza eta dirulaguntza publikoak eskuratzea eragozten dion zehapenik, ez administrazio-arlokorik, ez zigor-bidekorik, eta ez du halakorik eskuratzeko legezko debekurik (ildo horretatik, kontuan izan behar dira Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean sexuaren ziozko bereizkeria zehatzeko ezarritako zigor eta debekuak).				

III. ERANSKINA

ESKU-HARTZE HUMANITARIOETARAKO LAGUNTZEN PROPOSAMEN TEKNIKOA

1.- DESKRIBAPEN LABURRA

2.- KOKAPEN ZEHATZA

3.- TESTUINGURUA

4.- IDENTIFIKAZIOA

5.- JUSTIFIKAZIOA

6.- XEDE-BIZTANLEAK

6.1.- Xede-biztanleak identifikatzea eta karakterizatzea

Kolektiboa Lekualdatua/ errefuxiatua/ harreran dagoena	Kokapen geografikoa	Erkidegoa/ kokagunea /gunea	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Ez-bitarrak	Adin- taldea	Dibertsitate funtzionala
XEDE-BIZTANLEAK, GUZTIRA								

6.2.- Hautaketa-irizpideak

2022ko apirilaren 11, astelehena

6.3.– Gaitasunen eta ahuldadeen analisisia

Kolektiboa Lekualdatua/errefuxiatua/ harreran dagoena	Gaitasun fisikoak/materialak	Gaitasun sozialak/antolakuntzakoak/ kapital soziala	Gaitasun pertsonalak, motibazioa/jarrerak/ ezagutzak

Kolektiboa Lekualdatua/errefuxiatua/ harreran dagoena	Ahultasun fisikoak/materialak	Ahultasun sozialak/antolakuntzakoak/ kapital soziala	Pertsonen ahuleziak, motibazioa/jarrerak/ ezagutzak

7.– ESKU-HARTZEAREN LOGIKA

7.1.– Esparru logikoaren matrizea

HELBURUA	ADIERAZLEAK	LB	EGIAZTAPEN- ITURRIAK	KANPOKO FAKTOREAK/ HIPOTESIAK
HELBURU OROKORRA XXX				
HELBURU ESPEZIFIKOA XXX	I.O.V.1.H.E:		1. EI 2. EI ...	1. H; 2. H: ...
	I.O.V.2.H.E:		1. EI 2. EI ...	1. H; 2. H: ...

1. EMAITZA XXX	I.O.V.1.1.E.:		1. EI 2. EI ...	1. H; 2. H: ...
	I.O.V.2.1.E.:		1. EI 2. EI ...	1. H; 2. H: ...

2. EMAITZA	I.O.V.1.2.E.:		1. EI 2. EI ...	1. H; 2. H: ...
XXX	I.O.V.2.2.E.		1. EI 2. EI ...	1. H; 2. H: ...

7.2.– Proposatutako esku-hartzearen logikaren oinarri diren arrazoiak justifikatzea. Aurreko esku-hartzeetan ikasitakoa nola barneratu den azaltzea.

--

7.3.– Aurreikusitako jarduerak

--

8.– JARDUEREN KRONOGRAMA

Urtea	1. urtea		2. urtea	
	1.a	2.a	1.a	2.a
Seihilekoa				
1. emaitza				
Jarduerak...				
Emaitza (...)				
Jarduerak (...)				

9.– AURREKONTUA (Excel dokumentu batean)

10.– BIDERAGARRITASUNA

10.1.– Bideragarritasun teknikoa, materiala eta metodologikoa

--

10.2.– Segurtasun-mekanismoak

--

10.3.– Giza baliabideen bideragarritasuna

Kopurua	Langile motak AEL: ardatz estrategikoetako langileak TL: tokiko langileak EL: erbesteratutako langileak	Lanpostua	Eginkizunak	Egozpenaren %-a

11.– ZEHARKAKO IKUSPEGIAK

11.1.– Tokiko gaitasunak sendotzea eta ahultasuna murriztea, konektagarritasun-irizpideekin

--

11.2.– Biztanleek parte hartzea eta errealitate soziokulturalera egokitzea

--

2022ko apirilaren 11, astelehena

11.3.– Giza eskubideak: babesa, lekukotza eta bakea eraikitzea

11.4.– Genero-berdintasuna

11.5.– Jasangarritasun ekologikoa

12.– JARRAIPENA

13.– ETENGABEKO IKASKUNTZA

14.– EAE-KO SENTSIBILIZAZIO-EKINTZAK

14.1.– Testuingurua

14.2.– Xede-biztanleak

Kolektiboa	Kokapen geografikoa	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Ez-bitarrak	Adin-taldea	Dibertsitate funtzionala
XEDE-BIZTANLEAK, GUZTIRA							

14.3.– Ekintzek krisi humanitarioarekin duten lotura

14.4.– (H)abian 2030 ekimenaren esparruan herritarrak kritikoak izatea bultzatzea

15.– ERAKUNDE ONURADUNA(K)

15.1.– Entitate onuradunak/onuradunek esku-hartze humanitarioetan du(t)en esperientzia

Entitate onuradunak/onuradunek esku-hartze humanitarioetan du(t)en esperientzia (2014-2021)					
Hasierako eta amaierako urtea	Izenburua	Laburpena	Tokiko bazkidea eta herrialdea	Zenbatekoa, eurotan	Funtsen jatorria
2014-					

15.2.– Entitate onuradunak/onuradunek ekintza humanitarioarekin lotutako gizarte-erlaketako estrategietako (GEE) esku-hartzeetan du(t)en esperientzia

Entitate onuradunak/onuradunek GEE humanitarioko esku-hartzeetan du(t)en esperientzia (2020-2021)					
Hasierako eta amaierako urtea	Izenburua	Laburpena	Tokiko bazkidea eta herrialdea	Zenbatekoa, eurotan	Funtsen jatorria
2020-					

15.3.– Entitate onuradunen antolakuntza-gaitasuna indartzeko ekintzak

Entitate onuradunen antolakuntza-gaitasuna indartzeko ekintzak						
Jarduera ELM-n identifikatzea	Ekintza mota	Hasierako eta amaierako datak	Guztira parte-hartzaileak	Emakumeak	Gizonak	Zenbatekoa, eurotan

16.– TOKIKO BAZKIDEA(K)

16.1.– Tokiko bazkideak/bazkideek esku-hartze humanitarioetan du(t)en esperientzia

Tokiko bazkideak/bazkideek esku-hartze humanitarioetan du(t)en esperientzia (2018-2021)				
Hasierako eta amaierako urtea	Izenburua	Laburpena	Xede-biztanleak (kolektiboa eta eremu geografikoa)	Zenbatekoa, eurotan
2018-				

2022ko apirilaren 11, astelehena

16.2.– Tokiko bazkide(ar)en antolakuntza-gaitasuna indartzeko ekintzak

Tokiko bazkide(ar)en antolakuntza-gaitasuna indartzeko ekintzak						
Jarduera ELM-n identifikatzea	Ekintza mota	Hasierako eta amaierako datak	Partaideak, guztira	Emakumeak	Gizonak	Zenbatekoa, eurotan

2022ko apirilaren 11, astelehena

IV. ERANSKINA
DIRULAGUNTZAREN AURREKONTU BANAKATUA
ESKU-HARTZE HUMANITARIOETARAKO LAGUNTZAK EMATEKO 2022KO AURREKONTU OROKORRA (EUROTAN)

PARTIDAK	GLEA	%
A. KOSTU ZUZENAK		
A.I. Identifikazio-gastuak	0,00	% 0,00
A.II. Ondasunak eta zerbitzuak hornitzeko gastuak, erkidegoak eta pertsonak babesteko	0,00	% 0,00
A.III. Erakunde humanitarioak indartzeko gastuak		
A.III.1. Erakunde onuraduna	0,00	
A.III.2. Tokiko bazkidea	0,00	
A.IV. Lekukotza, salaketa eta eraginaren gastuak		
A.IV.1. Tokikoak eta nazionalak	0,00	% 0,00
A.IV.2. EAEn	0,00	
A.IV.3. Nazioartekoak	0,00	
A.V. Langile-gastuak		
A.V.1. Tokiko langileak	0,00	% 0,00
A.V.2. Langile erbesterratuak	0,00	
A.VI. Funtzionamendu-gastuak		
A.VI. Ebaluazioaren eta kontu-auditoriaren gastuak	0,00	% 0,00
A.VII.1. Ebaluazioa	0,00	% 0,00
A.VII.2. Auditoria	0,00	% 0,00
KOSTU ZUZENAK, GUZTIRA		
		0,00
B. ZEHARKAKO KOSTUAK		
EAEn izandako administrazio-gastuak	0,00	
ZEHARKAKO KOSTUAK, GUZTIRA		
		0,00
		% 100,00

2022ko apirilaren 11, astelehena

ESKU-HARTZE HUMANITARIOETARAKO LAGUNTZEN AURREKONTUA ERRUBROKA

		A/M =	
A. KOSTU ZUZENAK			
	A.I.	Identifikazio-gastuak	0,00 % 0,00
TXERTATU ERRENKADA			
	A.II.	Ondasunak eta zerbitzuak hornitzeko gastuak, erkidegoak eta pertsonak babesteko	0,00 % 0,00
TXERTATU ERRENKADA			
	A.III.	Erakunde humanitarioak indartzeko gastuak	0,00 % 0,00
	A.III.1.	Erakunde onuraduna	0,00
TXERTATU ERRENKADA			
	A.III.2.	Tokiko bazkidea	0,00
TXERTATU ERRENKADA			
	A.IV.	Lekukoza, salaketa eta eraginaren gastuak	0,00 % 0,00
	A.IV.1.	Tokikoak eta nazionalak	0,00
TXERTATU ERRENKADA			
	A.IV.2	EAEn	0,00
TXERTATU ERRENKADA			
	A.IV.3.	Nazioartekoak	0,00
TXERTATU ERRENKADA			
	A.V.	Langile-gastuak	0,00 % 0,00
	A.V.1.	Tokiko langileak	0,00
TXERTATU ERRENKADA			
	A.V.2.	Langile erbestertuak	0,00
TXERTATU ERRENKADA			
	A.VI.	Funtzionamendu-gastuak	0,00 % 0,00
TXERTATU ERRENKADA			
	A.VII.	Ebaluazioaren eta kontu-auditoria gastuak	0,00 % 0,00
	A.VII.1.	Ebaluazioa	0,00 % 0,00
	A.VII.2.	Auditoria	0,00 % 0,00
TXERTATU ERRENKADA			
B. ZEHARKAKO KOSTUAK			
		Euskal Autonomia Erkidegoan izandako administrazio-gastuak	

2022ko apirilaren 11, astelehena

V. ERANSKINA

ESKABIDEAK AURKEZTEKO JARRAIBIDEAK

I.– AURREKONTUAREN ELEMENTUAK

– Eskabide normalizatuan, entitate interesdunak esku-hartze humanitario horretarako eskatzen duen dirulaguntzaren aurrekontua jasotzen da eta bi zati ditu: batetik, kostu zuzenak, hau da, identifikatzeko, gauzatzeko, ebaluatzeko eta auditoretza egiteko beharrezko kostuak (A.I-etik A.VII-ra bitarteko partidak); eta, bestetik, zeharkako kostuak, hau da, entitate onuradunek kudeaketarako eta jarraipenerako dituzten beharrezko kostuak (B partida).

– Gauzatze-herrialdeko edo herrialdeetako legezko diruan egindako aurrekontuak eurotan kalkulatzeko, Europako Banku Zentralak bere webgunean ezarritako truke-tasa hartuko da kontuan:

(<https://www.ecb.europa.eu/home/html/index.en.html>). Erabili beharreko dibisa(k) ez badago/badaude banku horrek emandako zerrendan:

(https://www.ecb.europa.eu/stats/policy_and_exchange_rates/euro_reference_rates/html/index.en.html), Oanda-ren truke-tasa(k) erabiliko d(ir)a (www.oanda.com). Entitate onuradunak zer truke-tasa erabili duen, zein iturritatik lortu duen eta erreferentziatzat zer egun hartu duen adieraziko du instantzia normalizatuan –aurkeztu baino hilabete bat lehenago izan behar du, gehienez ere–.

– Diruz lagun daitezkeen gastuak dira esku-hartzearen izaerari erantzuten diotenak, hertsiki beharrezkoak direnak, eta ezarritako betearazpen-epean egiten direnak. Diruz lagundu daitezkeen gastuak honako alderdi hauekin lotutakoak dira, besteak beste: sargaiak eta materialak erosi eta garraiatu, ekipamenduak eta espazioak alokatu, pertsona fisiko eta juridikoak kontratatu, bidaiak eta egonaldiak egin, eta entitate onuradunak/onuradunek edo tokiko bazkideak/bazkideek egindako produktuak eta materialak sortu eta zabaltzearekin. Berreskuratu ezin diren zeharkako zergak ere diruz lagundu daitezke.

– Eskabidea egiterakoan, ez da beharrezkoa izango aurrekontuan proposatutako kostua bermatzeko proforma fakturak aurkeztea, eta kostua ez da izango merkatuko balioa baino handiagoa.

– Tokiko baliabide materialak eta giza baliabideak lehenetsiko dira. Baliabideek, eraginkortasun ekonomikoaren ikuspegitik egokiak izateaz gain, ingurumenaren aldetik jasangarriak izan behar dute, gizartearekiko arduratsuak eta tokiko kulturarekiko errespetuzkoak, eta tokiko langileak kontratatzea lehenetsiko da.

– Eskabide normalizatuarekin batera, balorazioa egiteko, entitate interesdunak aurrekontuaren banakapena aurkeztuko du, deialdiaren ebazpenean, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren webgunean eta egoitza elektronikoan argitaratutako eredu normalizatuan. Aurrekontuaren Excelak lau erlantz ditu: laburpena, partiden arabera aurrekontua, jardueren arabera aurrekontua eta langile-gastuen egozpenaren laburpena.

Gastuen sailkapena ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak arautzen dituen ekainaren 18ko 90/2019 Dekretuan jasotako partiden arabera egingo da. Hurrengo atalean, nola sailkatu zehazten da.

II.– AURREKONTU-PARTIDAK

A) GASTU ZUZENAK

A.I.– Identifikazio-gastuak

Partida honetan, esku-hartzea identifikatzeko miaketa-misioetan egiten diren ekintzekin zuzenean lotutako gastuak sartuko dira. Honako hauek joko dira identifikazio-gastutzat, hurrenez hurren:

2022ko apirilaren 11, astelehena

- Entitate onuradunak/onuradunek edo tokiko bazkideak/bazkideek pertsona fisiko edo juridikoak kontratatzea, berariaz identifikazioa egiteko.
- Identifikazioan parte hartzen duten pertsonen bidaia- eta egonaldi-gastuak, hala nola garraioa, ostatua, elikadura...
- Identifikazioan beharrezkoak diren komunikazio-ekipamenduak, proiektagailuak, ordenagailuak, elektrizitate-sorgailuak... alokatzea.
- Identifikazioa egiteko beharrezkoak diren sargaiak eta materialak erostea.
- Identifikazioa egiteko beharrezkoak diren bileretarako lokalak edo espazioak alokatzea.

Gastu horiek, gehienez ere, esku-hartzea aurkeztu baino bost hilabete lehenago eginak izan behar dute.

A.II.– Ondasunak eta zerbitzuak hornitzeko gastuak, erkidegoak eta pertsonak babesteko

Partida honetan, krisialdiak eragindako erkidegoak eta pertsonak babesteari zuzenean lotutako gastuak sartuko dira. Ondasunak edo zerbitzu horiek honako hauek hornitzekoak izango dira, besteak beste: elikadura, ura eta saneamendua, babeska eta aterpea, oinarriko azpiegiturak berreraikitzea eta birgaitzea, osasun- eta hezkuntza-zerbitzuak, laguntza juridikoa eta psikosoziala, gaitasunak indartzea eta diru-sarrerak sortzen dituzten jarduerak. Beraz, honako hauek hartzen dira erkidegoak eta pertsonak babesteko gastutzat, besteak beste:

- Entitate onuradunak edo tokiko bazkideak pertsona fisiko edo juridikoak kontratatzea, berariaz aipatutako zerbitzuak emateko.
- Erkidegoko kideek egindako lanengatiko soldatak edo laguntza ekonomikoak.
- Babesari lotutako bidaia- eta egonaldi-gastuak: garraioa, ostatua, mantenua...
- Eragindako komunitateak babesteko helburuari zuzenean lotutako ekipamenduak alokatzea: ibilgailuak, komunikazio-ekipamenduak, ordenagailuak, kamerak, elektrizitate-sorgailuak... Erosketa A.VI partidan sartuko da. Funtzionamendu-gastuak.
- Sargaiak eta materialak erostea: hainbat motatako kit-ak, elikagaiak eta nutrizio-osagarriak, sukaldeko tresnak, higiene- eta garbiketa-materialak, babesteko eta aterpetzeko materialak, txertoak eta sargai medikoak, hezkuntza-materialak, nekazaritzako tresnak eta sargaiak, haziak, mintegiak, eraikuntzako materialak eta tresnak, ur-hartuneak, komunak...
- Aurreko ekipamendua, sargaiak eta materialak gordetzea eta garraiatzea.
- Zerbitzuak eskaintzeko lokalak edo espazioak alokatzea: erkidegoarekin bilerak egiteko, biztanleak trebatzeko...

Zerbitzu horiek gauzatan edo diruzko ekarpen edo bono bidez eman ahalko dira.

A.III.– Erakunde humanitarioak indartzeko gastuak

Partida honetan, erakunde humanitarioen gaitasunak indartzeari zuzenean lotutako gastuak sartuko dira.

Tokiko entitateen gaitasunak ikuspegi integral batetik indartzea joko da halakotzat, hau da, politikak eta plangintza egiten laguntzea, lidergoa eta kudeaketa sustatzea, gaitasun teknikoak indartzea, zeharkako ikuspegietan sakontzea...

Entitate onuradunen kasuan, indartu beharreko gaitasunak zeharkako ikuspegiak lan-dinamiketan eta -estrategietan sartzeari eta kontuak emateari lotutakoak direla ulertzen da.

2022ko apirilaren 11, astelehena

Honako hauek jotzen dira erakunde humanitarioak indartzeko gastutzat:

- Entitate onuradunak/onuradunek edo tokiko bazkideak/bazkideek pertsona fisiko edo juridikoak kontratatzea, berariaz prestakuntza edo aholkularitza emateko.
- Prestakuntza-tailerretan parte hartzen duten pertsonen bidaia- eta egonaldi-gastuak: garraioa, ostatua, elikadura...
- Erakunde humanitarioak indartzeko helburuarekin zuzenean lotutako ekipamenduen alokairua: ordenagailuak, proiektagailuak, kamerak... Erosketa A.VI partidan sartuko da. Funtzionamendu-gastuak.
- Erakunde humanitarioak indartzeko helburuari zuzenean lotutako sargaiak eta materialak erostea.
- Erakunde humanitarioak indartzeko lokalak edo espazioak alokatzea: aretoak, auditoriumak...

A.IV.– Lekukotza, salaketa eta eraginen gastuak

Partida honetan, lekukotzak batzearekin, txostenak egin eta hedatzearekin, eta ukitutako pertsonen egoera salatzeko gainerako jarduerekin eta tokiko, nazioko edo nazioarteko espazioen gaineko eraginarekin lotutako gainerako jarduerak.

Honako hauek joko dira lekukotza, salaketa eta eraginen inguruko gastutzat, besteak beste:

- Entitate onuradunak/onuradunek edo tokiko bazkideak/bazkideek pertsona fisiko edo juridikoak kontratatzea, berariaz lekukotza, salaketa eta eraginen inguruko jardueretarako: ikerketa-taldeak, aholkularitza-enpresak, itzulpena, diagramazioa...
- Aipatutako ekintzei lotutako bidaia- eta egonaldi-gastuak.
- Testigantzak jasotzeko, salaketak egiteko edo eraginaren inguruko helburuekin zuzenean lotutako ekipamenduak alokatzea: kamerak, proiektagailua, ordenagailuak... Erosketa A.VI partidan sartuko da. Funtzionamendu-gastuak
- Testigantzak jasotzeko, salaketak egiteko edo eraginaren inguruko helburuekin zuzenean lotutako sargaiak eta materialak erostea: bulegoko materialak, fotokopiak, inprimaketak...
- Egindako produktuak eta materialak sortzea eta zabaltea: bideoak, liburuxkak, posterrak, kartelak...
- Lekukotza, salaketa eta eraginaren inguruko jardueretarako lokalak edo espazioak alokatzea: aretoak, auditoriumak...

A.V.– Langileen gastuak

Partida honetan, koordinazio-, jarraipen- eta kudeaketa-, kontabilitate-, informatika-, logistika-, segurtasun- edo garbiketa-lanetara atxikitako zerbitzuetako langileak lanaldi osoan edo partzialan kontratatzeko gastuak sartuko dira.

Babesteko, antolakuntza-gaitasuna indartzeko, lekukotzak biltzeko, salaketak egiteko eta eraginen inguruko ekintzetarako berariaz egindako edozein motatako kontratazioak dagozkien partidetan jasoko dira.

Atal honetan sartuko dira, halaber, atzerriko langileak kontratatzeko gastuak, bai eta jatorritik helmugara eta alderantziz egiten diren nazioarteko eta nazioko bidaiak, aseguruak eta bisa lortzeko gastuak ere. Etxebizitza, mantenu edo joan-etorri gastuak, norberarenak edo senideenak, nominan sartuta badaude bakarrik egotzi ahal izango dira.

A.VI.– Funtzionamendu-gastuak

Tokiko bazkideek esku-hartzearen kudeaketa orokorra egiteko higiezinetan eta zerbitzuetan egindako gastuak –duten atxikipenaren arabera hainbanatuta– joko dira funtzionamendu-gastutzat.

Honako hauek joko dira funtzionamendu-gastutzat, besteak beste: ibilgailu-gastuak, bulegoen alokairua, ordenagailuak, inprimagailua, bulegoko materiala, elektrizitatea, ura, Internet, telefonoa, segurtasun-sistemak, banku-gastuak, haurtzaindegi-zerbitzuak, ikusgarritasun-gastuak eta antzeko beste batzuk.

Atal honetan sartuko dira, halaber, tokiko langileek esku-hartzearen jarraipena gauzatzeko egiten dituzten bidaia- eta egonaldi-gastuak.

A.VII.– Ebaluazioaren eta kontu-auditoriaren gastuak

Partida honetan, esku-hartzearen ebaluazioari eta auditoretzari zuzenean lotutako gastuak sartuko dira, eta gauzatzea amaitzen den egunetik 6 hilabete igaro artekoak egotzi ahal izango dira.

B) ZEHARKAKO KOSTUAK

Partida honetan, entitate onuradunek esku-hartzearen kudeaketa eta jarraipenerako egiten dituen gastuak sartuko dira.

Lan horiek egiteko behar diren zenbatekoak diruz lagundutako zenbatekoaren arabera dira eta progresiboak izan behar dute. Zenbateko egozgarriak kalkulatzeko, tarteen sistema erabiliko da. Horrela, entitateak emandako dirulaguntzaren zuzeneko kostuen % 10 aplikatuko du gehienez lehen 90.000 euroen kasuan, 90.000 eurotik 180.000 eurora bitarteko zenbatekoaren kasuan % 8 eta 180.000 eurotik gorako zenbatekoen kasuan % 5.

VI. ERANSKINA

ESKU-HARTZEEN IKUSPEGIA

I.– ESKU-HARTZEAREN KALITATEA (gehienez 43 puntu)

Esku-hartzeen **egokitasuna** baloratzeko, kontuan hartuko da, lehenik eta behin, testuinguruari buruz emandako informazioaren garrantzia eta gaurkotasuna, zer krisi zehatzi erantzun nahi zaion eta zerk eragin duen. Bigarrenik, esku-hartzearen identifikazioa nola egin den baloratuko da, hau da, biztanleek eta beste erakunde batzuek proposamena identifikatu eta formulatzeko prozesuan jokatu duten rola, bai eta hura abian jartzeak bai erakundeentzat bai biztanleentzat eta haien ingurukoentzat ekar ditzakeen arriskuak kontuan hartu diren ere. Horrela, esku-hartzeak erakundeen eta langileen segurtasuna arriskuan jartzea, dauden gatazkak sakontzea edo berriak sortzea edo lehendik zeuden arrakalak edo desberdintasunak areagotzea saihestuko da. Hirugarrenik, honako alderdi hauek baloratuko dira: printzipio humanitarioen aplikazioa, hori ahalbidetu edo eragozten duten baldintzetan oinarrituz; proposamena nazioarteko, nazioko edo tokiko balizko erantzun humanitarioekin bat datorren; toki berean esku hartzen ari diren beste eragile batzuekiko koordinazioa eta ekimena entitate onuradunaren eta tokiko bazkidearen plangintza humanitarioen barruan sartzen den. Azkenik, biztanleen identifikazio zehatza, hautatzeko irizpideak eta ahultasunen eta gaitasunen azterketa baloratuko dira; hori guztia xede-talde bakoitzaren espezifikotasunen arabera egingo da.

Koherentzia-irizpidearen esparruan, aukeratutako esku-hartzearen justifikazioa eta aurretik ikasitakoa barneratu den baloratuko dira. Era berean, proposamenak erakundeen plangintza humanitarioarekin duen koherentzia aztertuko da (bai entitate onuradunaren plangintzarekin, bai tokiko bazkidearenarekin), baita esparru logikoaren matrizea osatzen duten helburu, emaitza, adierazle eta jardueren arteko koherentzia ere.

Bideragarritasunari dagokionez, erakundeek behar bezala gauzatu ahal izateko giza baliabideak, baliabide teknikoak, materialak eta metodologikoak eduki beharko dituzte. Ezarpenean, tokiko baliabideak lehenetsiko dira, bai eta tokiko langileak kontratatzea ere, ekimenak ekonomia bultzatzen lagundu dezan eta tokiko gaitasun profesionalak eta instituzionalak indartu ditzan, tokiko lidergoen aldeko apustuari jarraituz. Gainera, esku-hartzeak gatazka-testuinguruetan egiten direla kontuan hartuta, tokiko segurtasun-alderdiak zaindu beharko dira eta langile humanitarioek arlo hori ezagutzeko eta prestakuntza izateko neurriak hartu beharko dira.

II.– ZEHARKAKO IKUSPEGIAK BARNERATZEA (gehienez 40 puntu)

1.– Tokiko gaitasunak sendotzea eta ahultasuna murriztea, konektagarritasun-irizpideekin

Tokiko biztanleek, erakundeek eta instituzioek krisiari aurre egiteko ezagutzak, tresnak, baliabideak, prozedurak eta estrategiak dituzte. Gaitasun horiek indartzea ezinbestekoa da komunitateak erresilienteagoak izatea sustatzeko eta, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (aurrerantzean, eLankidetz) hartutako konpromisoarekin bat, laguntza humanitaria lokalizatzeko prozesuan aurrera egiteko. Ondorioz, esku-hartzeek honako elementu hauek izatea baloratuko da:

- Tokiko biztanleen, tokiko bazkideen, agintari publikoen edo entitate onuradunen gaitasun teknikoak eta estrategikoak indartzeko eta osatzeko, eta horien lekua hartzea saihesteko ekintzak.
- Tokiko baliabide materialak eta giza baliabideak erabiltzea.
- Berehalako beharrei erantzuteko jarduerak epe ertain edo luzerako beste batzuekin lotzea, irteera-estrategiak aurreikusiz.

2.– Biztanleen partaidetza

Tokiko biztanleek ezagutzen dituzte ondoen beharrak eta haiek dira krisiari erantzuten dioten lehenak. Haiek parte-hartzeak esku-hartze humanitarioei sarbidea errazten die, segurtasuna areagotzen du eta esku-hartzeen iraunkortasuna indartzen du. Parte-hartzea aniztasunean oinarrituz sustatzeak partzialtasuna eta diskriminazioa saihesteko bermatzen du. Ildo horretan, esku-hartzeek honako elementu hauek izan behar dituzte:

- Xede-biztanleriak dauden espazioetan (instituzionalak, tradizionalak, formalak edo informalak) duen parte-hartze mailaren azterketa.
- Biztanleek esku-hartzean parte har dezaten sustatzeko jarduerak.
- Parte-hartzea ahalbidetu eta sustatzen duten, inguruan dauden lidergoak eta parte-hartzeko moduak errespetatzen dituzten eta errealitate soziokulturalera egokitzen diren metodologiak.
- Kolektibo espezifiko batzuek –hala nola emakumeek, adinekoek edo dibertsitate funtzionala duten pertsonak– parte hartzeko neurri espezifikoak.
- Proposamenaren egokitasunari buruz kontsultatzeko, kexak jasotzeko eta hobetzeko proposamenak sartzeko tresnak, bai eta esku-hartzearen emaitzak itzultzeko tresnak ere.

3.– Giza eskubideak: babesa, lekukotza eta bakea eraikitzea

Ekintza humanitarioaren helburua erkidegoak babestea eta haiei laguntzea da. Horregatik, esku-hartzeek eskubideen errespetua bermatu behar dute, giza eskubideen eta errefuxiatuen arloko tresna juridikoei eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioari jarraituz. Era berean, «ez kaltetzeko» printzipioa errespetatu behar du, konpondu nahi den kaltea baino handiagoa ez eragiteko. Ildo horretan, esku-hartzeek honako elementu hauek izan behar dituzte:

- Eskubideen urraketa-egoeraren azterketa.
- Eskubideen titularrek beren eskubideak aldarrikatzeko eta betebeharren titularrek eskubideak errespetatzeko eta sustatzeko dituzten gaitasunak indartzeko jarduerak.
- Lekukotzak bildu eta eraginak zehazteko jarduerak herritarrak kritikoak izatea sustatu behar dute, baita maila lokal, nazional eta nazioartekoan aktibo izatea ere, konektatua egoteko eta hainbat mailatako proposamenak egiteko.
- Komunitateen arteko elkarriketa sortzeko gizarte- eta kultura-jarduerak, bizikidetzak eta bakearen eraikuntza hobetzen laguntzeko.

4.– Genero-berdintasuna

Esku-hartze humanitarioak ez dira neutroak generoaren ikuspegitik, eta, beraz, genero-desparekotasunak areagotzea saihesteko aukera bat dira, baita murriztu ahal izateko ere. Helburu hori lortzeko, esku-hartzeek honako elementu hauek izan behar dituzte:

- Emakumeen eta gizonen egoeraren eta posizioaren berri emateko genero-diagnostikoak.
- Analisisetan eta biztanleen aukeraketan datuak bereizita jasotzea.
- Nesken eta emakumeen behar praktikoei eta estrategikoei erantzuten dieten jarduerak.
- Emakumeei eta neskentzako jarduera espezifikoak edo haientzat egokitutakoak.
- Emakumeen parte-hartzea bermatzeko mekanismo espezifikoak, haien aniztasunean oinarrituta, bai esku-hartzea abian jartzerakoan, bai erabakiak hartzerakoan (identifikazioa, gauzatzea eta ebaluazioa).

Emakumeen erakundeekin eta haien behar eta eskaerei erantzuten dieten laguntza-taldeekin aliantzan aritzeak esku-hartzeetan ikuspegi hori txertatzen lagun dezake.

5.– Jasangarritasun ekologikoa

Esku-hartze humanarioek ingurune naturalean inpaktu negatiboak eragin ditzakete eta, horien ondorioz, biztanleen ahultasunak larriagotu. Ondorio horiei aurre egiteko, ekimenek honako elementu hauek izan behar dituzte kontuan:

- Ingurumen-egoeraren analisia.
- Esku-hartzeak ingurunean dituen eragin negatiboen identifikazioa.
- Esku-hartzearen inpaktu negatiboak arintzeko jarduerak.
- Esku-hartze eremuan baliabideak kudeatzeko mekanismo instituzionalak: hondakin solidoak eta hondakin-urak husteko sistemak, eraikuntzetan eta azpiegituretan tokiko materialak eta material jasangarriak erabiltzea, elikagaiak tokiko merkatuetan erostea, baratze ekologikoak ezartzea eta ingurumena errespetatzen duten diru-sarrerak sortzeko jarduerak, erregaien eta pestiziden erabilera arrazionala...

Erakunde ekologistekin eta ingurumenaren aldekoekin egindako aliantzak egiteak esku-hartzeetan ikuspegi hori txertatzen lagun dezake.

III.– ENTITATE ONURADUNA (gehienez 6 puntu)

eLankidetzak honako hau hartuko du kontuan entitate onuraduna ebaluatzeko: plangintza estrategiko humanarioa duen ala ez, esparru horretan azken urteetan izan duen esperientzia, maila instituzionalean genero-politika txertatu duen eta esku-hartzeak arlo humanarioan antolakuntza-gaitasuna indartzeko jasotzen dituen ekintzak, bere lan-dinamiketan eta -estrategietan zeharkako ikuspegiak barneratzeari eta kontu-ematea hobetzeari begira. Ekintza humanarioko estrategien kasuan, entitateek Euskal Autonomia Erkidegoan duten egoitzatik ezarri beharreko plan estrategiko bat izan beharko dute.

IV.– TOKIKO BAZKIDEA (gehienez 11 puntu)

eLankidetzak esku-hartzea gauzaten duten entitateak tokikoak izatearen aldeko apustua egiten du, eta arlo horretan plangintza estrategiko bat izatea baloratzen du. Gainera, eLankidetzak azken urteetan esku-hartze humanarioetan izan duten esperientzia aztertuko du, baita maila instituzionalean genero-politika txertatu duten ere eta, kasuan-kasuan, esku-hartzeak barne hartzen dituen antolamendua indartzeko ekintzak. Tokiko erakundeen gaitasun humanarioen indartzea integrala izan daiteke eta hainbat motatako ekintzak barne hartu ahal izango ditu, adibidez: politikak eta plangintza egiten laguntzea, lidergoa eta kudeaketa sustatzea, gaitasun teknikoak indartzea, zeharkako ikuspegietan sakontzea... Ekintza humanarioko estrategiek tokiko bazkideak indartzeko jarduerak barne hartu beharko dituzte nahitaez.